

Hernio mendi

Joxean Agirre

Nik dakidala gailurrean olerki bat zuen mendi bakarra zen Hernio. Iristen zinen gora, eguraldia lagun Iparraldeko kostatik hasi eta Bizkaiko mendietarainoko bistak mi-resten zenituen eta han zegoen gurutze anabasaren bazter batean eskuz idatzita-ko olerki hori. Oiartzungo herriak han jarritakoa izaki, buruari buelta batzuk eman ondoren erabaki genuen Lekuona zaharrak egina izan behar zuela. «*Ernio mendi, Ernio mendi, euskal menditan za-arrena*», hasten zen eta «*Gogoan al duk antzinateko gure Lartaunen izena*» jarraitzen zuen. Badakit hirugarrena «*lar bi-kain aren aiena*» amaitzen zela eta hor bukatzen dira memorian gelditu zaizki-dan hitzak.

Mila metroko altuerak ematen duen ar-gitasunagatik-edo, neurtitz txit dotorea

iruditzen zitzaidan niri. Ingurumariari begira nengoen bitartean errepikatzeko gauza izaten nintzen, baina Zelatunera jaitsi eta txorizo egosia jaten hasi orduko galtzen nuen ahapaldiren bat eta berriro gailurrera igotzeko irrikan gelditzen nin-tzen osorik gogoratu ahal izateko.

Ekintza bandaliko batzuk tarteko edo garbiketa bat egite aldera udalek erretira-tu egin zuten gurutze andana bat. Horien artean zegoen Zelatunen erromatarren aurka garaipenak lortutako Lartaun bu-ruzagiari eskainia. Ez legoke gaizki neur-titza daraman gurutze hori berriro jarri-ko balute, gailurrak behinola zuen ukitu literarioa berreskura dezan.

Bien bitartean gailurretik behera bur-din uztaiak dauzkan gurutzean geldialdia eginez konformatu ohi gara. Gure aitona-ri gerriko min malapartatu batzuk senda-

tu zizkioten uztai horiek. Behetik gorako-an bota zuen izerdiak sendatu izango ziz-kiola esaten genion, baina haren oinorde-koak badaezpada uztaiak pasatzen hasi ginen.

Eta minak sendatzeko leku ezinbeste-koa Antonioren Borda da. Berriki Repsol Gidak “solete” bat eman dio Maria Jesusi eta jatetxe handiek Michelin izarra era-kusten duten harrotasun berarekin jarri du sarreran agiria.

Pandemiaren kontrako neurriak tarte-ko, ez dute aurten ere erromeria formalik antolatu, baina trikitilariak ibili dira az-ken igandeotan. Bihar ere izango dira. LA-BIk ez zuen kasua aztertuko, baina ez da-go zalantzarik dantzalekuetako giroa baino sanoagoa dela mendi erromeriet-a-koa, mendiko izerdia gimnasioetakoa baino sanoagoa den bezalaxe. •

Elektrikak. Denak balio du?

Xabier Mikel
Errekondo

Oinez noa, zamatuta, ohiko oi-nazeen atsekabea pauso artean desagertuko zaidalakoan. Urra-durak gogoan eta azalean, uga-riak eta anitzak, eta tronpatu egiten naiz samin guztiei kolpe batez aurre egitean. Ikasia dugu, halabeharrez, larri-tasunei lehentasunak ezartzen samine-tako bat bederen arintzeko esperantzaz.

Energiaren prezioaren gorakada amaigabeak uda inoizko maila goriene-ra eraman du eta nire zirkuitu eta fusi-bleak erre. Jada ez dut ezer ulertzen. Nahiz enpresa pribatuen helburua moz-

kinak lortzea izan, onartuko dugu herri-tarren behar oinarritzkoa den elektrizi-tateak prezio onartezina izan dezakee-nik? Onartuko dugu gainezka dauden patriketarako xox andana gehiago arpi-latzea?

Han urrun, nonbait norbait boteretsu sentitzen da. Dolarrak begi ninietan il-tzatuta hortz zorrotz eta ezpain lerdetsuetatik hartzen ditu erabakiak, igitaia-rekin nola ebakitzen dituen bizitza lerdanak sentitu ere egin gabe.

Auzora etorrita... ikasia dugu Iberdro-lak gose aseezina duela eta bidean dese-

giten dituen familien odol jarioak ez zaizkiola axola, eragindako minaren etekina gozoagoa bailitzaion.

Azken krisi ekonomikoan milaka fa-miliak pairatu zuten argindar mozketak ilunpetik argitara atera zuen pobrezia energetikoa. Geroztik, badakigu etenga-bekoak direla argindar etenak.

Arduradunek, baina, izen-abizenak dituzte; guregandik hurbilen hasteko, Iberdrola eta bere buru Ignacio San-chez Galán. Izan bezate etorkizunean nahiko zori beraien menutik probatze-raino. •